



Erabaki Hernani Decide prozesuari jarraipena emanaz, iraileko azken asteetan 3 saio ireki burutu dira herritarrekin.

Saio ireki hauen helburu nagusia prozesuan aurrera egingo duten eta prozesutik kanpo geratuko diren proposamenak aukeratzea izan da. Proposamenek aurrera egin edo kanpo geratu baloratzeko bi irizpide hartu dituzte kontuan bileretara hurbildutako herritarrek:

- Alde batetik, proposamen bakoitzak hernaniarren eta orokorrean herritarren egunerokotasuna hobetzen edo errazten duten baloratu da,
- Eta bestetik, proposamen bakoitzaren kostua (ekonomikoa, humanoa, ingurumenarekikoa, etab.) eta onuraren arteko oreka aztertu dute.

Irizpideen arabera balorazio honek proposamen batzuek puntuazio altuagoa eta besteek baxuagoa izatea ekarri dute, eta honen arabera, prozesuan aurrera egingo dutenak eta kanpo geratuko direnak zeintzuk izango diren erabaki da.

Prozesuaren urrats hau Udal teknikari, ordezkari politiko eta langileek egindako balorazioak jaso ondoren burutu da, eta beraz, proposamen bakoitzaren balorazioak ezagutzeko aukera egon da bilera ireki hauetan.

Udalak proposamenen inguruan egindako balorazioak Hernaniko Udalaren webgunean ikusgai daude, Agenda 21eko atalean. Iraileko 3 saioen memoriak ere, gune berean aurkituko ditu herritarrek.

Azkenik, hiru saio horien ondorio izan diren balorazioak jasotzen ditu dokumentu honek, berdez prozesuan aurrera egin duten proposamenak eta saioan bertan jasotako puntuazioa, eta horiz berriz, prozesutik kanpo geratutakoak.

Erabaki Hernani Decideren azken urratsa besterik ez da geratzen 2016ko Udal Aurrekontuan txertatuko diren proposamenak erabakitzeko: etxez etxe eta online zabalduko den galdetegia izango da. Galdetegi honek, 32 proposamen jasoko ditu (hiru saio hauetan aukeratutakoez gain, auzo elkarteek hautatutako proposamenak ere egongo dira bertan) eta herritar bakoitzak 10 hautatu beharko ditu.

PROZESUAN AURRERA

Biteriko saioan (Irailak 23):

- **Udalak musika ekipo bat erostea, bai udal ekimenetarako, baita herriko eragile sozial ezberdinek antolatzen dituzten ekimenetarako (20,5 ptu)**
- **Aldibereko itzulpenak egiteko interpretatzailaren maleta (14,5 ptu)**
- **Biteriko areto nagusiko ekipoak errebisatu eta behar izanez gero berritzea (12 ptu)**

- Landare tokiko errugbi guneko berrikuntzak: Eserlekuen hedapena, 120 gehiagora zabaltzea; Bidetxo bat egin lehengo zelaitik bigarrenera,; Zelaia txukun/garbi mantentzeko makinaria (12 ptu)
- "Ipuin kontaketa" maiztasun handiagorekin eta asteko egun ezberdinetan (11,5 ptu)
- Kiroldegiko kafetegi inguruan takilak ipintzea (8 ptu)

Plaza feministako saioan (irailak 24):

- Hezkidetza egitasmo bat hezkuntza ziklo guztietan (39,5 ptu)
- Haur gun bat, espazio itxi bat, 0-5 urte bitarteko haurrentzat (36,5 ptu)
- 0-3 urterako Parke egokitua (33,5 ptu)
- Lurrean margotutako jolasak jartzea Atsegindegian (26 ptu)
- Haurrentzako ekintza kultural gehiago batez ere HHko etapan dauden umeentzako (2/6 urte) (22 ptu)
- Propuesta para la solidaridad política a la lucha pacífica de los Territorios Ocupados del Sáhara Occidental aportando material informático (21 ptu)

Beterriko saioan (irailak 28):

- Herriko hainbat leku peatonalizatzea: Elkano-Nafar kaleko bidegurutzea; Aristizabal-Urbieta kaleko bidegurutzea; Latsunbe kalea-Urbieta kalea eta Marieluts kalea elkartzen dituen bidegurutzea (22,5 ptu)
- Komun publikoa Ave Marian (19,5 ptu) *
- Mejorar la iluminación y aceras del barrio Sagastialde (16,5 ptu)
- Adquisición de viviendas en el casco histórico para dedicarla al alquiler a bajo coste para jóvenes después de su rehabilitación (15,5 ptu)
- Ondorengo lekuetan zeharbideak jartzea: Karmelo Labaka kalean, erdi aldean, zeharbide berria egitea. (13 ptu)

PROZESUTIK KANPO:

Biteriko saioan (Irailak 23):

- Espazio publikoan, parke edo plazaren batean fitnessa eta giharrak lantzeko tresnak jartzea (5,5 ptu)
- Zubipen hobekuntzak egitea: Zelaiko hesia kendu eta berria jartzea proposatzen da. Argiteria aldatu da, aldagelak aldatzeaz daude (5 ptu)

- Kaxko historikoko hainbat eraikin "antigraffiti" tratamenduarekin garbitu eta margotzea (3 ptu)
- Atletismoko pista berritzea. (0 ptu)
- Karrozak egiteko lokal egoki baten beharra (-3 ptu)
- Padeleko pista (-8 ptu)

Plaza feministako saioan (irailak 24):

- Aristizabal eta Karobieta artean dagoen plaza hobetzea (19 ptu)
- Helduek erabiltzeko moduko jolas gela, psikomtrizitate gela modukoa (19 ptu)
- Atsegindegiko estalpea hobetzea (8,5 ptu)
- Mañe y flaquer auzoan dagoen bide heziketako pistaren ondoan zegoen parkearen lekua txukun jartzea, eserleku, belardi edo beste parke batekin (6 ptu)
- Tilosetako lurra berriztatzea. Historia duen plaza da eta gaur egun ere bizitza handia duena (1 ptu) *

Beterriko saioan (irailak 28):

- Florida auzoan aparkalekuen moldaketa: politena parkearen parean, baterian aparkatzeko erabiltzen den eremua pintatzea, aparkalekua margotuz eta hauek hartu behar duten angelua markatuz (9,5 ptu)
- Etxeberriko frontoi atzeko autobus geltokian markesina edo itxaroteko lekuren bat jartzea (9,5 ptu)
- Herrian aparkaleku gehiago sortzeko proposamena: Urbieta kalean autoak baterian aparkatzeko baliabideak jarriz (7 ptu)
- Liburu bat, Hernaniko landareen eta animalien ezaugarriak eta bertako izenak biltzen dituen (7 ptu)
- Kaleetako garbiketa hobetzea, Zenbait auzoetan makina garbitzailea besterik ez da pasatzen eta garbitzaileen beharra dago, izan ere, makina txirrikitu askotara ez da iristen. (-2 ptu)

*** OHARRA: lehenesteko ariketan aurrera egin zuen arren, galdetegian ez da agertuko aurten egingo delako.**

* OHARRA: lehenesteko ariketatik kanpo geratu bazen ere, galdetegian agertuko da Kaxko auzo elkarteak proposatu duelako.